


Gasteizko udalak ia 5 miloi pezeta emango die euskaltegiei

FELIX IRIARTE / GASTEIZ

 4.884.535 pezeta (244.227 libera) izango dira Gasteizko udalak hiriko bost euskaltegiei emango dizkienak, kurtso honetan euskarazko klaseak emateagatik. Dirua banatzeko orduan emandako klase kopurua eta homologatua den ala ez hartu du kontuan Udalak.

Homologatutako zentroak, klase bakoitzagatik, orduko 8,75 pezeta jasotzen du eta libreak 6,50. Guztira, AEK-k 634.471 pezetako laguntza izango du, IKAk berriz, 2.033.954koa, Hegoalde euskaltegiak 1.021.545koa eta Udaberria euskaltegiak 1.194.567koa. Klase orduak gutxitu egin dira orokorrean eta Udalak eman duen diru kopurua ere txikiagoa da joan zen urtekoarekin konparatuz gero.

Toki Eder ikastolako gurasoek ez dute aurrean diru laguntzarik izango programa municipalaren barruan sartu bait dira.

Tolosako zabortegia handitzerako hamar urte igaroko dira

J.J. Zubimendik, Gipuzkoako Hirigintzako Diputatuak, adierazi zuenez

Tolosako udalak zabortegia haundituko du eta lanek hamar urte iraungo dute **Juan Jose Zubimendik Gipuzkoako Hirigintza, Arkitektura eta Ingurune Diputatuak atzo prentsaurreko batean adierazi zuenez.**

JAIONE GARMENDIA / DONOSTIA

Zabortegia Altzon jartzeak kontrako eritzi asko jaso zituela eta Tolosakoa zabaltzea erabaki dutela esan zuen Diputatuak. Orainxe bertan jasotze topografikoa egiten ari dira eta proiektua bukatutakoan, zabortegiaren benetazko hedadura ezagutuko da. Berriz ere denbora ez luzatzeko eta beste aukera batzuk egon arren, Tolosako zabortegia handitzea erabaki zuten. Diputatuaren ustez «gainontzeko proiektuak ez ziren eginkorrak»

Datorren urtean San Marcoseko zabortegiaren hirugarren fasearekin eta Ergobiako zabor ez toxikoenarekin hasiko direla esan zuen Zubimendik. Era berean, eritetxeetako



Juan Jose Zubimendi. C. VILLAGRAN

hondakinak bildu eta hustiatzeko azterketa egin ondoren, irailean Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztu eta erantzunaren zain daudela adierazi zuen. Lehen urrats honen ondoren ospitaleetako hondakinentzako zentrua jarriko dute martxan eta kontrolik gabeko zabortegiak berreskuratu eta ixteko egitasmoarekin jarraituko dute. Egitasmo honen barnean Petritegi eta Itsasondoko zabortegiak ere berreskuratuko dira.

PARKETARAKO DAUDEN EGITASMOAK

Ingurugiroarekin jarraituz, parkeen berritzea eta gordezea barne dituen egitasmoa eman da ezagutzera. Jaizkibeleko parkearen proiektua aipatu ondoren, «kontserbazio egitasmoa jorrazteko plana» udaletxeetan dagoela adierazi zuen Foru diputatuak.


Saturrarán, Larraitz eta Mendizorrotzeko parkeekin ere gauza bera egingo dute, Zubimendiren ustez «bertan jende asko ibiltzen denez kalte gehiago egin ez daitezkeen ordenakuntza egitea beharrezkoa zelako». Udaletxea eta Foru Aldundiaren artean Mendizorrotzen 1.200.000 metro karratu dituzte.

Tolosako udalak, inguruko herrien zaborrak onartuko dituen edo ez erabakitzea «Tolosako udaletxearen esku» dagoela adierazi zuen Zubimendik. Tolosaldeko zabor toxikoen %85a Tolosan sortzen dela kontuan harturik, zaborrak botatzeko tokia egitea «premiatzekoa» dela argitu zuen Diputatuak eta hondakinen %15aren arazoa «aztertuko dela» adierazi zuen.

Epaitegiak

Galdakako hilketen sumarioa sekretupean mantenduko da

G. AGIRRE / BILBO

 Joan den apirilaren 13an Galdakaoan izan ziren hilketei buruzko sekretupeko sumarioa atzo ezagutzera ematekoa bazen ere, Alfonso Gonzalez Guija, kasua daraman epaileak honen berri ez ematea erabaki du.

Zortzigarren Instrukzio Epaitegiko Alfonso Gonzalez epaileak aditzera eman zuenez ezin du sumarioaren berri eman «une honetan ez litzatekeelako batere komenigarria izango». Hala ere, «Joseba Zidaurren Perez eta Idoia Ortuondo Atutxak nahi gabe nar kotrafikoarekin zerikusia duen zerbait entzun edo ikusi izango zuten eta horregatik hilko zizutela», azpimarratu zuen kasuaren ardura duen epaileak. Bi galdakaoar gazteen hilketarekin zerikusia omen duten hiru pertsona une honetan atxiloturik daudela gehitu zuen Gonzalezek.



EUSKAL KULTURAREN BATZARREA



Euskal Kulturaren Batzarreak EGUNKARIA agurtzen du


EKB osatzen duten erakunde, elkarte eta talde guztien elkarlanari esker euskaltzalegoari bere zerbitzuak eskaintzen dizkio:

- Aholkularitza Juridikoa
- Prentsa Boletina
- Dokumentazio Zentrua
- Euskaldunaren Hizkuntz Eskubideen Gidaliburua
- BAT/Soziolinguistika-Aldizkaria
- Herri mailako lanerako Planifikaziorako Orientabideak
- ...



Baleazaleen kalea 12, 1-A
20011 DONOSTIA
Tl. 46 66 76 / 50. Fax-a 46 68 94



 ra gazte!
 bat izan dugu



**B
R
A
N
K
A**
s
a
i
l
b
e
r
r
i
a

 behar eta nahi zenuena gainera beste hainbat 

eta  berri

zatoz Durangora !!